

ETXEBIZITZAKO PLUS ELEKTRIZITATE BABESA ZERBITZUAREN BALDINTZA EKONOMIKOAK

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Zerbitzuak honako prestazio hauek barne hartzen ditu:

1. Sukaldeko etxetresna elektrikoaren konponketa.
2. Klimatizazio-matxuren konponketa.
3. Premiazko matxura elektrikoaren konponketa.
4. Brikolaje Elektrikoko Zerbitzua.

1. Sukaldeko etxetresna elektrikoaren konponketa

Teknikari gaitu bat bezeroaren etxera joango da eta jarraian adierazitako etxetresna elektrikoaren matxura mekanikoak, elektronikako eta/edo barneko matxura elektrikoak konponduko ditu, baldin eta etxetresna horiek kontratutako hornikuntza-helbideari dagokion hornikuntza-puntuan (etxea) badaude.

Zerbitzuan sartzen diren etxetresna elektrikoak:

- ▶ Hozkailua
- ▶ Garbigailua
- ▶ Sukalde elektrikoa
- ▶ Labea (ez da sartzen mikrouhin-labea, ekipo independentea bada)
- ▶ Kanpaia
- ▶ Ontzi-garbigailua
- ▶ Lehorgailua
- ▶ Izozkailua
- ▶ Termo edo galdara elektrikoak

Kausa justifikatu bat dela-eta etxetresna elektrikoa ezin bada konpondu (esate baterako, ordezeko piezak falta direlako), bezeroak eskubidea izango du egin ezin izan den konponketaren ordezkapen-ordainketa jasotzeko, jarraian zehazten diren zenbatekoen arabera, eta zenbateko horri kendu egingo zaio urteko kontratuaren epealdi berean eginiko konponketen kostua.

Etxetresna elektrikoak 10 urte baino gehiago baditu, ezingo da ordezkapen-ordainketarik jaso.

Kostuaren Urteko Muga: 10 urte baino gutxiago dituzten etxetresna elektrikoaren kasuan, konponketa zerbitzuan sartuko da, kostu gehigarririk gabe, baldin eta ez bada etxetresna elektriko bakoitzeko Kostuaren Urteko Muga gainditzen. Etxetresna bakoitzeko Kostuaren Urteko Muga 300 eurokoa da, aplikatu daitezkeen zerga guztiak barne.

10 urtetik gorako etxetresna elektrikoaren kasuan, konponketan joan-etorria eta 3 orduko mantentze-lanak sartuko dira, baina bezeroak ordaindu beharko ditu piezak.

Ordezkapen-ordainketa, egin ezin izan den konponketagatik: kausa justifikatu bat dela-eta matxura ezin bada konpondu, ordezkapen-ordainketa ekipamenduaren antzintasunaren arabera egingo da, jarraian adierazten den moduan:

- ▶ 300 € urteko, 5 urtetik beherako antzinasuna duten etxetresna elektrikoetarako.
- ▶ 250 € urteko, 5 urte edo gehiagoko eta 7 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten etxetresna elektrikoetarako.
- ▶ 200 € urteko, 7 urte edo gehiagoko eta 9 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten etxetresna elektrikoetarako.
- ▶ 150 € urteko, 9 urte edo gehiagoko eta 11 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten etxetresna elektrikoetarako.
- ▶ 0 € urteko, 11 urtetik gorako antzinasuna duten etxetresna elektrikoetarako.

2. Klimatizazio-matxuren konponketa

Zerbitzu honen bidez, hornikuntza-helbidean ageri den bezeroaren etxebizitzara teknikari kualifikatu bat bidaliko da, matxura hauek konpon ditzan: erabilera partikularreko etxebizitzetan instalatuta dauden zuzeneko hedapen bidezko klimatizazio-ekipamendu indibidualetakoak, horien hozte-zirkuitu eta hustubideetakoak, eta ekipamenduetarako konexio elektrikoetakoak. Barne hartzen ditu split edo multisplit motako eta hodi bidezko aire girotuko instalazioak eta/edo bero-ponpak.

Kausa justifikatu bat dela-eta klimatizazio-ekipoa ezin bada konpondu (esate baterako, ordezko piezak falta direlako), bezeroak eskubidea izango du egin ezin izan den konponketaren ordezkapen-ordainketa jasotzeko, jarraian zehazten diren zenbatekoen arabera, eta zenbateko horri kendu egingo zaio urteko kontratuaren epealdi berean eginiko konponketen kostua.

10 urte baino gehiago dituzten klimatizazio-ekipoek ez dute ordezkapen-ordainketarik jasoko.

Kostuaren Urteko Muga: 10 urtetik beherako ekipoen kasuan, Kostuaren Urteko Muga 300 eurokoa da, aplikatu daitezkeen zerga guztiak barne.

10 urtetik gorako ekipoen kasuan, konponketan joan-etorria eta 3 orduko mantentze-lanak sartuko dira, baina bezeroak ordaindu beharko ditu piezak.

Ordezkapen-ordainketa, egin ezin izan den konponketagatik: kausa justifikatu bat dela-eta matxura ezin bada konpondu, ordezkapen-ordainketa ekipamenduaren antzinasunaren arabera egingo da, jarraian adierazten den moduan:

- ▶ 300 € urteko, 5 urtetik beherako antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- ▶ 250 € urteko, 5 urte edo gehiagoko eta 7 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- ▶ 200 € urteko, 7 urte edo gehiagoko eta 9 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- ▶ 150 € urteko, 9 urte edo gehiagoko eta 11 urte baino gutxiagoko antzinasuna duten ekipamenduetarako.
- ▶ 0 € urteko, 11 urtetik gorako antzinasuna duten ekipamenduetarako.

3. Premiazko matxura elektrikoaren konponketa

Zerbitzu honen bitartez, abisu eman eta hiru (3) orduren buruan, enpresak bezeroari arreta emango dio hornikuntza-helbidean agertzen den bezeroaren helbidean gertatutako elektrizitate-larrialdiengatik, alegia bai etxe osoan bai bezeroaren lokalean (edo bertako gelaren batean) argindarrik gabe geratzeagatik. Egin beharreko mantentze-lanen Kostuaren Urteko Muga 551 eurokoa izango da. Lanek muga hori gainditzen badute, bezeroak ordaindu beharko dio gainerako kostu hori baimendutako instalatzaileari, aldez aurretik aurrekontua jaso eta onartu ondoren.

4. Brikolaje Elektrikoko Zerbitzua

Zerbitzu honen bidez, urtero teknikari kualifikatu bat joango da hornikuntza-helbidean agertzen den bezeroaren helbidera, Baldintza Berezetan agertzen diren zerbitzuak emateko.

Sartuta daude joan-etorrien gastuak eta gehienez 3 orduko mantentze-lanak. Kostu gehigarriak, halakorik badago, bezeroari fakturatuko zaizkio, aurrekontua aurkeztu eta hark onartu ondoren.

Prezioa: prezioa 6,95 eurokoa da (BEZik gabe) hilabete bakoitzeko.

Prezioa, Urteko Mugak eta Ordezkapen Ordainketa kontratua indarrean dagoen urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean eguneratuko dira, KPIaren aldakuntzaren arabera. Erreferentziako KPI hori Estatistikako Institutu Nazionalak argitara emandako Kontsumoko Prezioen Indize Orokorren aldaketa ezarri aurreko urtearen azarotik azarora bitarteko epeari dagokion balio erreal metatua izango da.

Zerbitzuaren iraupena: zerbitzuaren iraupena urtebetekoa izango da eta urtez urte automatikoki luzatuko da, alderdietako edozeinek aurkakorik jakinarazi ezean; jakinarazpen hori kontratua amaitu baino hamabost egun lehenago egin beharko da, gutxienez.

Zerbitzu honi loturiko hornikuntza-puntuetan egon daitezkeen elektrizitate edo gas naturalaren hornikuntza-kontratuak, Iberdrolarekin egindakoak, bertan behera geratzen badira, horrek ez du esan nahi bezeroak ETXEBIZITZAKO PLUS ELEKTRIZITATE BABESA zerbitzutik baja ematen duenik, berariaz hala eskatzen ez badu.

Zerbitzua erabiltzeko hogeita hamar (30) eguneko gabealdia ezartzen da, indarrean sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, Baldintza Berezetan zehaztutakoaren arabera.

Eskaintza: ETXEBIZITZAKO PLUS ELEKTRIZITATE BABESA zerbitzua DOAN lehenengo bi (2) hilabeteetan.

BALDINTZA BEREZIAK

1. Xedea

Baldintza Berezi hauen xedea da IBERDROLA CLIENTES SAUK (aurrerantzean, Iberdrola) Baldintza Partikularretan adierazten den ETXEBIZITZAKO PLUS ELEKTRIZITATE BABESA izeneko zerbitzu gehigarria ematea. Honako hauek barne hartzen ditu zerbitzuak:

1.1 Sukaldeko etxetresna elektrikoaren konponketa

Zerbitzu honen bitartez, teknikari kualifikatu batek etxean konponduko ditu kontratuan jasotzen den horniduraren helbideko bizilekuan dauden eta Baldintza Partikularretan jasotzen diren etxetresna elektrikoaren barneko matxura mekanikoak, elektronikoak eta/edo elektrikoak.

1.1.1 Etxetresna elektrikoaren antzinasuna

Zerbitzuan sartzen diren gailuen antzinasuna zehazteko, erosketa-eguna hartuko da kontuan, eta bezeroak erosketaren tiketaren edo fakturaren bitartez justifikatu beharko du.

1.1.2 Irismena

1.1.2.1 10 urte baino gutxiago dituzten etxetresna elektrikoak: zerbitzuan sartzen dira matxurak konpontzeko egin behar diren joan-etorrien, larrialdien, mantentze-lanen, piezen eta zergen gastuak. Kostu horien guztien baturari Konponketa Kostua esango zaio hemendik aurrera. Teknikariak, bisita egin ondoren, Konponketa Kostuaren xehetasunak emango dizkio bezeroari.

Ez da konponketa-lanen urteko mugarik egongo. Baldintza Partikularretan ezartzen den moduan, Kostuaren Urteko Muga bat ezarri da etxetresna elektriko bakoitzeko.

Bisitaren ondoren bezeroari ematen zaion Konponketa Kostuak etxetresna elektriko bakoitzeko Kostuaren Urteko Muga gainditzen badu, 1.5. klausulan ezarritakoaren arabera jokatuko da.

1.1.2.2 10 urte baino gehiago dituzten etxetresna elektrikoak: zerbitzuan sartzen dira joan-etorriak eta mantentze-lanaren lehen 3 orduak. Bezeroak ordaindu beharko du piezen kostua.

Bezeroak ordaindu beharko ditu piezen kostua eta 3 orduetik aurrerako mantentze-lanak. Fakturatu aurretik, bezeroari aurrekontua aurkeztuko zaio, eta hark aurrekontua onartu beharko du.

1.1.2.3 Honako matxura hauen kasuan, zerbitzuan joan-etorriak eta mantentze-lanaren lehen 3 orduak sartuko dira; gainerako kostuak bezeroak ordaindu beharko ditu.

- ▶ Korrosioa edo oxidazioa, hala aparatuen erabilera normalak edo higadurak nola aproposak ez diren ingurumen- edo klima-egoerek, hondarrak, hautsak, hezetasunak edo gazitasunak eragindakoa.
- ▶ Software-eguneraketak.
- ▶ Aparatua oker edo araei jarraitu gabe instalatzeagatik, aireztapen desegokiagatik, aldaketa desegokiengatik edo jatorrizkoak ez diren aldaketarako piezak erabiltzeagatik sortutako matxurak.
- ▶ Aparatua Iberdrolak baimendu gabeko teknikari batek konpondu, aldatu edo desinstalatzearen ondorioz gertatutako kalteak edo matxurak.
- ▶ Aparatuan instalatutako software edo firmwareak eragindako matxurak.

Bezeroak ordaindu beharko ditu piezen kostua eta 3 orduetik aurrerako mantentze-lanak. Fakturatu aurretik, bezeroari aurrekontua aurkeztuko zaio, eta hark aurrekontua onartu beharko du.

1.2 Klimatizazio-matxuren konponketa

Teknikari kualifikatu batek etxean eta konponduko ditu Baldintza Partikularretan adierazten diren klimatizazio-ekipamenduko matxurak eta instalazioa, kontratuan ageri den horniduraren helbideari dagokion bizilekuan.

1.2.1 Klimatizazio-ekipamenduen antzintasuna

Zerbitzuan sartzen diren etxetresnen antzintasuna zehazteko, erosketa-eguna hartuko da kontuan, eta bezeroak erosketaren tiketaren edo fakturaren bitartez justifikatu beharko du.

1.2.2 Irismena

1.1.2.1 10 urte baino gutxiago dituzten ekipoak: zerbitzuan sartzen dira matxurak konpontzeko egin behar diren joan-etorrien, mantentze-lanen, piezen eta zergen gastuak. Kostu horien guztien baturari Konponketa Kostua esango zaio hemendik aurrera. Teknikariak, bisita egin ondoren, Konponketa Kostuaren xehetasunak emango dizkio bezeroari.

Ez da konponketa-lanen urteko mugarik egongo. Kostuaren Urteko Muga bat ezarri da, Baldintza Partikularretan jasotakoaren arabera.

Bisitaren ondoren bezeroari ematen zaion Konponketa Kostuak Kostuaren Urteko Muga gainditzen badu, 1.5. klausulan ezarritakoaren arabera jokatuko da.

1.1.2.2 10 urte baino gehiago dituzten ekipoak: zerbitzuan sartzen dira joan-etorriak eta mantentze-lanaren lehen 3 orduak. Bezeroak ordaindu beharko du piezen kostua.

Bezeroak ordaindu beharko ditu piezen kostua eta 3 orduetik aurrerako mantentze-lanak. Fakturatu aurretik, bezeroari aurrekontua aurkeztuko zaio, eta hark aurrekontua onartu beharko du.

1.2.3 Matxura artatzea

Matxura bi (2) laneguneko epean artatuko da gehienez ere, larunbatak, igandeak eta jaiegunak salbuetsita, jakinarazpena egiten denetik aurrera, halabeharrez ez bada.

Matxura artatzeko epea betetzat joko da teknikaria ezarritako epean bezeroarekin harremanetan jarri bada eta

gutxienez hitzordu bat eskaini badio arestian aipatutako gehieneko epearen barruan. Bezeroak bisita beste une batean egiteko eskatzen badu, epea ez da urratutzat joko.

1.2.4 Zerbitzutik kanpo

Zerbitzutik kanpo daude honako hauek:

- ▶ Merkataritza- eta industria-instalazioetako zerbitzuak eta, oro har, etxerako soilik erabiltzen ez diren etxetresna elektrikoak.
- ▶ Etxebizitza bati baino gehiagori zerbitzu ematen dioten klimatizazio-instalazio zentralizatuak, ekipamendu eramangarriak, finkoak ez diren edo zerbitzuarekin lotuta dagoen energiaren hornikuntza-puntuan kokatuta ez dauden instalazioak, eta zerbitzuan berariaz jasotako teknologiez bestelakoak erabiltzen dituzten klimatizazio-ekipamenduak.
- ▶ Bermealdian dauden instalazio edo ekipamenduak.
- ▶ Teknikoak ikusten ez dituen edota eskueran ez dituen ekipoen edo instalazio-zatien konponketa.
- ▶ Esmalteak, pintaketak, nikeleztaketak, kromoztaketak eta aparatuaren barne-funtzionamenduari eragiten ez dioten piezak eta osagarri estetikoak edo bestelako piezak.
- ▶ Korrosioa edo oxidazioa, hala aparatuaren erabilera normalak edo higadurak nola aproposak ez diren ingurumen- edo klima-egoerek, hondarrak, hautsak, hezetasunak edo gazitasunak eragindakoa.
- ▶ Ekipamenduen edo instalazioaren ezohiko erabilerak, arduragabeak edo desegokiak eragindako matxurak, nahi gabeko kalteak, edo kanpoko jatorria duen bestelako edozein ekintzak sorturikoak.
- ▶ Aparatua mantentzeko edo kontserbatzeko operazioak; besteak beste, koipeztaketa, doikuntzak edo garbiketak eta aldizkako berrikuspenak.
- ▶ Fabrikatzaileak kontsumigarritzat hartutako pieza oro.
- ▶ Fabrikatzailearen ordezkari piezak falta direlako ekipamenduen erabilgarritasun-galeragatik egindako erreklamazioak.
- ▶ Zuzenean nahiz zeharka suteen edo ohiz kanpoko fenomenoek zein hondamendien ondorio diren matxurak.
- ▶ Aparatua oker edo araei jarraitu gabe instalatzeagatik, aldaketa desegokiengatik edo jatorrizkoak ez diren aldaketa-piezak erabiltzeagatik sortutako matxurak.
- ▶ Ekipamenduetan gertatzen diren kalteak, baldin eta ez baditu funtzionamenduaren barne-matxura batek eragin, edo estalitako instalazioari berezkoak ez zaizkion elementuek eragindako kalteak, eta, oro har, edonolako erantzukizun zibilak.

1.2.5 Ordezkapen-ordainketa, egin ezin izan den konponketagatik

Kausa justifikatu bat dela-eta matxura ezin izan bada konpondu (esate baterako, ordezkari piezak falta direlako), bezeroak eskubidea izango du egin ezin izan den konponketaren ordezkapen-ordainketa jasotzeko. Ordainketa horren zenbatekoa klimatizazio-ekipamenduaren antzinatasunaren arabera izango da, Baldintza Partikularretan adierazten den moduan. Ordezkapen-ordainketaren zenbatekoari kendu egingo zaio urteko epealdi horretan eginiko konponketen kostua, halakorik egin bada. Ordezkapen-ordainketa behin baino ezingo da egin kontratua indarrean dagoen urteko epealdian. Horretarako, Iberdrolak aparatuari buruzko datuak (marka, modeloa, serie zk.) jasoko ditu arreta ematen duenean.

Ordezkapen-ordainketa 10 urte baino gutxiago duten ekipoei baino ezingo zaie aplikatu.

1.3 Premiazko matxura elektrikoaren konponketa

Zerbitzu honek barne hartzen du bezeroari laguntza ematea, abisua jaso eta 3 orduren buruan, haren etxebizitzan edo lokalean gertatutako larrialdi elektrikoengatik, alegia etxe osoan nahiz gelaren batean argindarrrik gabe geratzeagatik.

1.3.1 Irismena

Zerbitzu honen bitartez, bezeroaren ez beste inoren sare elektrikoan larrialdi elektrikorik bada, Iberdrolak bere gain hartuko du baimendutako instalatzaile batek egindako konponketaren kostua, Baldintza Partikularretan ezarritako mugaraino. Bezeroaren abisua jaso eta hiru (3) ordu igaro baino lehen esku hartzea bermatzen da. Ez dago frankiziarik, eta zerbitzu horri lotutako energia-hornikuntzaren kontratua indarrean sartu eta hogeita hamar (30) egun arteko gabealdia ezartzen da.

Larrialditzat hartuko da etxeko sare elektrikoan gertatutako ezusteko eta bat-bateko matxura, etxe osoan zein haren atal batean (garajeko, trastelekuko, etxearen eranskineko, igerilekuko eta kanpoko argiztapena salbu) argindarrrik eza eragin badezake.

Erabiltzailearen ez beste inoren sare elektrikoaren Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoan (2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuak onartua) ezarritakoa da. Bezeroa bizilagunen elkarte batean badago, kanpo utziko da bizilagunen elkartearen jabetzako sarea. Neurgailuak bereizten ditu bizilagunen sareak eta erabiltzailearena, eta elementu hori azken erabiltzailearen sarea sartzen da.

Zerbitzuan sartzen dira joan-etorriak, piezak, mantentze-lanak eta zergak, Baldintza Partikularretan ezarritako Urteko Muga gainditu gabe eta gehieneko esku-hartze kopururik ezarri gabe. Baldin eta entxufeak, etengailuak edo beste gailu batzuk aldatu behar badira matxura konpontzeko, instalatzaileak aukeratzen dituen elementuekin ordezkatzeko dira, betiere bezeroak ez baditu aldaketa egiteko beste pieza batzuk ematen bere kontura. Ezin da bermatu konponketa erabilitako piezak etxebizitzaren ingurune estetikarekin bat etorriko direnik.

1.3.2 Zerbitzutik kanpo

Zerbitzutik kanpo daude honako hauek:

- ▶ 15 kW-tik gorako potentzia duen hornidura elektrikoaren duten etxebizitzak edo lokalak.
- ▶ Hainbat gailu elektronikoren konponketa, hala nola etxetresna elektrikoak, ordenagailuak, airea girotzeko aparatuak, ponpak, berogailuak, motorrak, haizagailuak, sorgailuak, eguzki-panelak, antenak eta etxebizitzaren instalazioetan integratuta edo integratu gabe dagoen beste edozein aparatu elektriko.
- ▶ Argiztapenerako gailuen konponketa edo aldaketa; adibidez, lanparak, bonbillak eta hodi fluoreszenteak.
- ▶ Neurgailuen konponketa, elektrizitatea banatzen duen enpresaren baldin badira.
- ▶ Erabiltzailearen soilik diren instalazioetatik kanpo gertatzen diren akats elektrikoak, aurrez aipatutakoaren arabera.
- ▶ Hornidura elektrikoaren erabat edo partzialki falta izatearen ondoriozko kalteak.
- ▶ Erabiltzaileak berak, nahita edo ez ikusiarena egiteagatik, eragindako kalteak.
- ▶ Matxurarik aurkitu ez den kasuak.
- ▶ Matxura aurkituta ere larrialditzat jotzeko ezaugarriarik ez duten kasuak.
- ▶ Merkataritza- edo industria-instalazioetako zerbitzuak eta, oro har, kontratuan agertzen den etxebizitzari edo egoitzari ez dagozkionak.
- ▶ Bezeroak bere kontura kontratatu eta gauzatu dituen zerbitzuak, aurrez Iberdrolak baimendu ez baditu.
- ▶ Egin zirenean indarrean zegoen legeria betetzen ez duten instalazioen konponketa.

1.4 Brikolaje Elektrikoko Zerbitzua

1.4.1 Irismena

Zerbitzu honen barnean, teknikari gaitu bat bezeroaren etxera joango da urtero, honako zerbitzu hauek emateko:

- ▶ Mekanismo elektrikoak aldatzea (entxufeak, etengailuak eta pultsadoreak).
- ▶ Hozkailuak, izozkailuak, garbigailuak, lehorgailuak, ontzi-lehorgailuak, labeak, sukalde elektrikoak eta termo edo galdara elektrikoak konektatzea eta martxan jartzea. Hemen sartuko litzateke lehendik dauden ur-hargune eta hustubideetara konektatzea.
- ▶ Ekipo teknologiko jakin batzuk konektatzea eta martxan jartzea: telebistak, DVDak, kontsolak eta home cinema ekipoak.
- ▶ Sukalde eta komunetako erauzgailuak instalatzea edo aldatzea.
- ▶ Tenporizadoreak eta termostatoak instalatzea.
- ▶ Argi-puntuetan lanparak edo aplikeak instalatzea edo aldatzea.
- ▶ Zerbitzuan sartzen dira joan-etorrien kostuak eta gehienez 3 orduko mantentze-lanak.

Zerbitzu honen bidez, eskaera egin eta gehienez 2 lanegunen buruan emango da arreta (larunbat, igande eta jaiegunak zenbatu gabe), ezinbesteko kasuetan izan ezik. Bi aldeek lanak gauzatzeko ordu bat adostuko dute, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 19:00etara.

1.4.2 Zerbitzutik kanpo

Zerbitzutik kanpo daude honako hauek:

- ▶ Lanak egiteko erabilitako materialen kostua.
- ▶ Baldintza Partikularretan ezarritako muga gainditzen duten eskulan-orduak.
- ▶ Lehendik zeuden argi-puntu edo instalazioak ez diren beste batzuk, baita horiek instalatzeko jarri behar diren erretenak ere.
- ▶ Lehendik zeuden ur-hargune edo hustubideak ez diren beste batzuk, baita horiek instalatzeko jarri behar diren erretenak ere.
- ▶ Instalazio elektrikoak araudietara edo beharrian tekniko jakin batzuetara egokitzea.
- ▶ Ekipo elektroniko eta informatikoetako softwareak instalatzea edo konpontzea.
- ▶ Aparatuak kentzea eta edonolako hondakinak kudeatzea.

1.5 Mugak gainditzen dituzten kostuen fakturazioa

Bezeroak zerbitzuak barne hartutako prestazioetakoren bat eskatzeak Baldintza Partikularretan sartzen ez diren kostuak ekar litzake berekin. Zehazki, kasu hauek gerta daitezke:

- ▶ Etxetresna elektriko baten konponketaren kostuak, etxetresna baterako urte betean egindako konponketei gehitutakoan, etxetresna bakoitzeko Kostuaren Urteko Muga gainditzen du guztiz edo parte batean. Zerbitzuan sartzen ez diren kostu gehigarriak.

- ▶ Klimatizazio-ekipoak konpontzeko eta instalatzeko kostuak, urtebetean egindako konponketen kostuari gehitutakoan, Kostuaren Urteko Muga gainditzen du guztiz edo parte batean. Zerbitzuan sartzen ez diren kostu gehigarriak.
- ▶ Premiazko matxura elektriko bat konpontzeko kostuak Urteko Muga gainditzen du.
- ▶ Brikolaje elektrikoaren erabileran zerbitzuak barne hartutakoez bestelako kostuak daude. Kasu horietan, bezeroak ordaindu behar du zerbitzuan sartzen ez diren kostu horien zenbatekoa, eta fakturatu egingo zaio, aurrekontua aurkeztu eta bezeroak onartu ondoren.

1.6 Lotutako hornikuntza-puntua

Zerbitzu honek energia elektrikoaren hornikuntza-puntu bati lotuta egon beharko du, eta 15 kW edo gutxiagoko potentzia eduki beharko da kontratatuta. Edo, bestela, behe-presioko gas naturalaren hornikuntza-puntu bati egon beharko du lotuta, eta horrek 3.1 edo 3.2 tarifa izan beharko du.

Bezeroak hornikuntza-punturako kontratatutako potentzia elektrikoa areagotzen badu (15 kW-etik gora) edo 3.3 edo gehiagoko gas-tarifa batera igarotzen bada, baja emango zaio zerbitzu honetan.

1.7 Bermea

Konponketa-lanek sei (6) hilabeteko bermea izango dute, konponketa amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

2. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK

2.1 Kontratua aktibatzea

Hogeita hamar (30) egun naturaleko gabealdia ezarri da, kontratua indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita (kontratu honen 3.1 klausulan dator zehaztuta). Aldi horretan ezin izango da zerbitzua erabili; beraz, ez zaie erantzunik emango bezeroak egiten dituen eskaerei.

2.2 Zerbitzua eskatzea

Bezeroak zerbitzua eskatu ahal izango du:

- ▶ Iberdrolaren Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren telefono-zenbakira deituz.

Iberdrolaren Aurrez Aurreko Arreta Puntu batera joanez.

2.3 Zerbitzua emateko baldintzak

IBERDROLAK baldintza hauetan jasotakoaren arabera emango du ETXEBIZITZAKO PLUS ELEKTRIZITATE BABESA zerbitzua:

- ▶ Bezeroak eskatutako jarduketa estalita ez badago (aipatutako salbuespenetako bat delako), egindako gastu oro fakturatuko zaio. Horretarako, dagokion aurrekontua aurkeztuko zaio, onar dezan.
- ▶ Iberdrola kontratu honen xede diren lanak ongi egitearen erantzule besterik ez da izango. Bereziki, enpresak ez du erantzukizunik edukiko kasu hauetan:
 - ▶ Gailuak behar bezala ez erabiltzeagatik edo ongi ez mantentzeagatik pertsonengan eragindako kalteak edo kalte materialak.
 - ▶ Edozein gailuri edo haren funtzionamenduari eragindako kalteak, ez badira gailuak berak eragindakoak.
 - ▶ Estaldurapeko gailuek hirugarrenei eragindako kalteak.
 - ▶ Ezusteko edota ezinbesteko kasuak.
- ▶ Iberdrola ez da greba, matxinada, muturreko fenomeno meteorologiko eta halako ezinbesteko kasuetan gerta litezkeen

atzerapenen edo arazoen erantzule izango.

3. ZERBITZUAREN INDARRALDIAREN HASIERA, IRAUPENA, BERRITZEA ETA BAJA

3.1 Indarrean jartzea

Zerbitzu honi loturiko hornikuntza-puntuari dagokion elektrizitate edo gas naturalaren kontratua, Iberdrolarekin egindakoa, berria bada, kontratu hau elektrizitatearen edo gas naturalaren hornikuntza benetan hasten den egunean jarriko da indarrean, dagokion gabealdia albo batera utzi gabe.

Zerbitzu hau bezeroak Iberdrolarekin lehendik zuen hornikuntza elektrikoko edo gas naturaleko kontratu bati gehitzen bazaio, hori sinatzen den egunean jarriko da indarrean kontratu hau ere, dagokion gabealdia albo batera utzi gabe.

3.2 Iraupena

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, indarrean jartzen denetik hasita.

3.3 Berritzea

Zerbitzua automatikoki berrituko da urtez urte, alderdietako edozeinek aurkakorik jakinarazi ezean; jakinarazpen hori kontratua amaitu baino hamabost egun lehenago egin beharko da, gutxienez.

3.4 Baja

Alderdietako edozeinek zerbitzuan baja eman dezake edozein unetan, inolako zigorrik jaso gabe. Dena den, zerbitzua eskaintzaren bat duen hornikuntza elektriko bati lotuta badago, hornikuntza elektriko horren Baldintza Partikular eta Berezieta ezarritakoa aplikatuko da.

Zerbitzu honi loturiko hornikuntza-puntuetan egon daitezkeen elektrizitate edo gas naturalaren hornikuntza-kontratuak, Iberdrolarekin egindakoak, bertan behera geratzen badira, horrek ez du esan nahi bezeroak ETXEBIZITZAKO PLUS ELEKTRIZITATE BABESA zerbitzutik baja ematen duenik, berariaz hala eskatzen ez badu.

Baja eskatzaileak behar bezala frogatuta jakinarazten duen egunean hasiko da.